

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERROETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Behin betiko onartzea hilerrien ordenantza

Kontzeju honek, 2017ko abenduaren 20ko bilkuran, hasierako onarpena eman zion hilerrien erabilera arautzen duen ordenantza onartzeko espedienteari. Espediente hori jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da. Ondorioz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 eta 111. artikuluetan eta 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16. artikulua ezartzen dutenaren ondorioetarako, ordenantzaren aldaketa oso-osorik ematen da argitara, indarrean jar dadin.

#### Hilerrien ordenantza

##### I. titulua

Xedea

**1. artikulua.** Ordenantza honek Erroetako hilerriei buruzko alderdi guztiak arautzea du helburu.

##### II. titulua

Aplikazio eremua

**2. artikulua.** Ordenantza honen aplikazio eremua da kontzejuan diren bi hilerriak, berria eta zaharra.

##### III. titulua

Xedapen orokorrak

**3. artikulua.** Bi hilerri horiek Erroetako Kontzejuarenak dira, eta hari baino ez dagozkio hilerrien administrazioa, kudeaketa, zaintza eta zuzendaritza. Agintari judizialen eta osasun alorreko agintarien esku utziko dira, berriz, lege dagozkien esku hartzeak. Erroetako Kontzejuak ahalmena du, hilerri zerbitzua eskaintze aldera, beharrezko administrazio eginkizunak eta eginkizun teknikoak gauzatzeko.

**4. artikulua.** Osasun eta zaintza arloan, ordenantza honetan ezarritakoaz gain indarrean dagoen araudia ere bete beharko dute hilerri biek.

**5. artikulua.** Ordenantza honek xedatzen ez dituenak kontzejuaren erabaki bidez arautuko dira eta, bestela, indarrean dagoen araudiaren bidez.

**6. artikulua.** Norbanakoei dagokie:

Hilobiak, kolunbarioak eta horma hilobiak egoera egokian mantentzea, estetikari eta apaindura publikoari dagokienez.

Ordenantza honetan ezartzen diren zerbitzuak jasotzeagatik eskubideak edo tasak ordaintzea.

Bai Erroetako Kontzejuak bere eskumenak baliatuz ematen dituen xedapen guztiak bai beste administrazio edo erakunde eskudunen batek emandakoak errespetatu eta betetzea.

**7. artikulua.** Toki bien ezaugarriak kontuan harturik, hilerrietara doan pertsona orok begirunea erakutsiko du. Hau da, debekatuta daude moralaren edo zernahi sinesmenen aurkako jarrerak, jardunak edo adierazpenak.

**8. artikulua.** Debekatuta dago hilerrietan animaliak sartzea.

**9. artikulua.** Erroetako Kontzejuak hilerrien esparruetan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako funtzioek eskatzen duten begirunea exijituko du.

Kontzejuak hilerrien zaintza orokorra egingo du; hala ere, ez du bere gain hartuko hilobietan, kolunbarioetan, instalazioetan, horma hilobietan eta hilerrietan jar daitezkeen gauzetan hirugarren batzuek egin ditzaketen lapurreta eta hondaketen gaineko erantzukizuna.

**10. artikulua.** Norbanakoek garbitu, mantendu eta apainduko dituzte ehorzlekuak. Lan horiek instalazioak errespetatuz egingo dira; jardunak amaitutakoan, bai ehorzlekua bai inguru aurretik zeuden moduan utzi beharko dira, eta sortutako hondakinak, gaiak eta erabilitako lanabesak kendu egin beharko dira handik.

Norbanakoren batek bere ehorzlekua behar bezala zaintzen ez badu eta hondatuta badago, kontzejuak egoera hori zuzentzeko eskatuko dio eta, ematen zaion epean lanak burutzen ez baditu, kontzejuak era subsidiarioan egin ahal izango ditu, norbanakoaren kontura.

**11. artikulua.** Erroetako Kontzejuak egingo ditu hilerrian beharrezkoak diren lan materialak, hala nola, mantentze eta garbitze lanak, obrak... eta haren ardura izango da lanok antolatzea eta ikuskatzea.

**12. artikulua.** Jartzen diren hilarriak, plakak eta hilobi sinboloak norbanakoenak dira, eta haien ardura izango da haiek konpontzea eta zaintzea. Norbanakoak beharturik daude, tokiak merezi duen begirunez, horiek zaintzera.

**13. artikulua.** Tokia zentzuz arautze aldera, ordenantza hau indarrean jartzen denetik aurrera, kolunbarioen, horma hilobien estalkietan edo horman bertan jarriko dira oroigarri-plakak. Oroigarri-plaka horiek, gehienez ere, 0,50 m X 0,50 m izango dute. Kontzejuak erabakiko du zer hurrenkeratan lotuko diren horman.

**14. artikulua.** Oroigarri-plaketako idazkunak edo inskripzioak errespetuzkoak izango dira eta ez da onartuko, inondik ere, idazkun lotsagaberik edo iseka edo zernahi ideia edo sinesmenen aurka eraso egiten duenik.

**15. artikulua.** Ez dago hilerrietan gauzak betiko uzterik, salbu eta oroigarri-plakak eta ehorzlekuak apaintzeko jarritakoak.

**16. artikulua.** Aseguru etxeak eta antzekoak ezingo dira inolaz ere ehorketa eskubideen titular izan.

#### IV. titulua

##### Hilerrri berrirako xedapenak

**17. artikulua.** Horma hilobiak, kolunbarioak eta hilerriaren gainerakoa kontzejuarenak dira eta, ondorioz, ez horma hilobiak ez kolunbarioak ez hilerriko gainerako inguruak ezin izango zaizkie laga norbanakoei. Zenduaren familiaren edo legezko arduradunen zeregina da horma hilobiak, kolunbarioak eta ehorzlekuak osasun, apaindura eta zaintza egoera onean edukitzea.

**18. artikulua.** Hilozak eta gorpuzkiak edo haiek erre izanaren ondoriozko errautesak hilerrian baino ezin izango dira ehortzi.

Hilozak eta gorpuzkiak edo haiek erre izanaren ondoriozko errautesak toki bakar batean ehortzi ahal izango dira aldi bakoitzean.

**19. artikulua.** Horma hilobi bakoitzean, erabiltzen den bakoitzean, hilotz bat baino ezingo da ehortzi. Ez da onartzen horma hilobietan errautesak ehortzea.

Horma hilobiak ordena baten arabera esleituko dira; hain zuzen ere, behetik gora eta eskuinetik ezkerreara.

Kontzejuak bermatu egingo du hilotza, gutxienez ere, hamar urtez egon ahal izango dela ehortzirik horma hilobian.

Kontzejuak erabaki eta koordinatuko du hilotzak noiz atera horma hilobitik, toki beharretan oinarriturik. Hilobietatik ateratako gorpuzkiak, horretarako legez gaituta dauden pertsonak kontraktorik adierazi ezean, hilerrian bertan lurperatuko dira, kontzejuak erabakiko duen toki batean, berak erabakitako ordena baten arabera. Horrelakoetan, horman jarri ahal izango dute familiak edo legez gaitutako pertsonak horma hilobiko oroigarri-plaka.

**20. artikulua.** Lurrean ehortzi ahal izango dira hilotzak eta errautsak, baldin eta horretarako lege ahalmena dutenek hala eskatzen badute. Kontzejuak zehazten duen tokian eta ordenaren arabera egingo dira lurperatzeak.

Kontzejuak bermatu egingo du hilotza edo errautsak, gutxienez ere, hamar urtez egon ahal izango direla lurperaturik.

Debekatuta dago errautsak barreiatzea hilerrian edo haren inguruetan.

**21. artikulua.** Hilotzak eta gorpuzkiak edo haiek erre izanaren ondoriozko errautsak kolunbarioetan baino ezin izango dira ehortzi.

Kolunbarioak hurrenkera baten arabera esleituko dira: lehenengoa beheko lerroko ezkerrekoa esleituko da, ezkerretik eskuinera banan-banan egingo da, eta horiek bukatutakoan, bigarren lerrokoekin hasiko da, lehenengoarekin egin den bezalaxe.

Ez da inola ere baimenik emango errautsak kolunbario batetik beste batera aldatzeko.

Bi hilotzen errautsak ehortzi ahal izango dira kolunbario bakarrean, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- Hilotz biren errautsak kolunbario berean ehorzteko, ezinbestekoa izango da lehenengoa hiltzean bigarrena ezkontidea, izatezko bikotekidea edo izaera bereko maitasun harremana izan duen pertsona izatea edo, bestela, gutxienez, bigarren graduako odolkidetasun harremana edo lehen graduako ahaidetasun harremana izatea lehenengoarekin.

- Pertsona bi horiek beren errautsak kolunbarioetan hobiratzeko ehorzte eskubidea izan beharko dute. Nahiz eta bi pertsona horiek kolunbario berean ehortzi, ehorzketa bakoitzak bere tasa ordainduko du. Tasa hori ordenantza honetan jasotzen da.

- Bigarren pertsona baten errautsak dagoeneko beste pertsona baten errautsak dauden kolunbario berean ehorzteko erabakia bi horien familiei dagokie.

Kontzejuak bermatu egingo du errautsak, gutxienez ere, hamar urtez egon ahal izango direla kolunbarioan. Bi pertsonaren errautsak badaude, epe hori azkena ehortzi zenetik aurrera kontatuko da.

Kontzejuak erabaki eta koordinatuko du noiz hustu kolunbarioak, toki beharretan oinarriturik. Hilobietatik ateratako gorpuzkiak, horretarako legez gaituta dauden pertsonak kontraktorik adierazi ezean, hilerrian bertan lurperatuko dira, kontzejuak erabakiko duen toki batean, berak erabakitako ordena baten arabera. Horrelakoetan, horman jarri ahal izango dute familiak edo legez gaitutako pertsonak kolunbarioko oroigarri-plaka.

**22. artikulua.** Honako hauek dute horma hilobietan edo lurrean ehortziak izateko ehorzte eskubidea:

A. Hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, Erroetan erroldaturik egon direnenak.

B. Jaio direnetik Erroetan erroldaturik egon diren 12 hilabete baino gutxiagoko haurrak.

C. Hilerria eraikitzen lagundu zutela eta, 1989an Erroetan erroldaturik egon ziren pertsonak. C) idatz zati honetan jasotako ehorzketek, horma hilobian zein lurrean izan, 600 euroko tasa ordainduko dute.

D. Gaixotasun eta adin arrazoiengatik edo ezinbestez Erroetan erroldatuta egoteari utzi eta, beraz, hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, erroldatuta egoterik izan ez duten pertsonenak (salbu eta artikuluko honen B idatz zatian jasotako haurrak), baldin eta hiltzean Erroetan erroldatuta egon badira. Kontzejuak aztertu eta onartu beharko du ezinbestekotasuna, eragindako pertsonak, bizirik dela, edo haren legezko ordezkariak hala eskatu ondoren. D) idatz zati honetan jasotako ehorzketek, horma hilobian zein lurrean izan, 600 euroko tasa ordainduko dute.

**23. artikulua.** Honako hauek dute beren errautsak kolunbarioetan ehortziak izateko ehorzte eskubidea:

A. Hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, Erroetan erroldaturik egon direnenak.

B. Jaio direnetik Erroetan erroldaturik egon diren 12 hilabete baino gutxiagoko haurrak.

C. 2017an, hilerriko obretan lagundu zutela eta, 2017an Erroetan erroldaturik egon ziren pertsonenak. C) idatz zati honetan jasotako errauts ehorzketek 450 euroko tasa ordainduko dute.

D. Gaixotasun eta adin arrazoiengatik edo ezinbestez Erroetan erroldatuta egoteari utzi eta, beraz, hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, erroldatuta egoterik izan ez duten pertsonenak (salbu eta artikuluko honen B idatz zatian jasotako haurrak), baldin eta hiltzean Erroetan erroldatuta egon badira. Kontzejuak aztertu eta onartu beharko du ezinbestekotasun hori, eragindako pertsonak, bizirik dela, edo haren legezko ordezkariak hala eskatu ondoren. D) idatz zati honetan jasotako errauts ehorzketek 450 euroko tasa ordainduko dute.

**24. artikulua.** Honako hauen errautsak ehortzi ahal izango dira lurrean:

A. Hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, Erroetan erroldaturik egon direnenak.

B. Jaio direnetik Erroetan erroldaturik egon diren 12 hilabete baino gutxiagoko haurrak.

C. Hilerria eraikitzen edo 2017an hilerriko obrak egiten lagundu zutela eta, 1989an edo 2017an Erroetan erroldaturik egon ziren pertsonenak. C) idatz zati honetan jasotako errauts ehorzketek 350 euroko tasa ordainduko dute.

D. Gaixotasun eta adin arrazoiengatik edo ezinbestez Erroetan erroldatuta egoteari utzi eta, beraz, hil aurreko, gutxienez, 12 hilabeteetan, etenik gabe, erroldatuta egoterik izan ez duten pertsonenak (salbu eta artikuluko honen B idatz zatian jasotako haurrak), baldin eta hiltzean Erroetan erroldatuta egon badira. Kontzejuak aztertu eta onartu beharko du ezinbestekotasun hori, eragindako pertsonak, bizirik dela, edo haren legezko ordezkariak hala eskatu ondoren. D) idatz zati honetan jasotako errauts ehorzketek 350 euroko tasa ordainduko dute.

E. Hiltzean Erroetan erroldaturik egon ez arren eta 24. artikulua.ren A, B, C edo D idatz zatietan xedatutako betekizunak bete ez arren, inoiz Erroetan erroldaturik egon direnenak. E) idatz zati honetan jasotako errauts ehorzketek 600 euroko tasa ordainduko dute.

**25. artikulua.** Ordenantza hau onartzen denetik aurrera, automatikoki eta urtero eguneratuko dira KPIren bilakaeraren arabera aurreko artikuluetan jasotako tasak.

**26. artikulua.** Egunen batean hilerrian toki gabeziarik balego, kontzejuak aztertuko luke egoera, eta egun bat adierazi ahal izango luke eta egun horretatik aurrera ezin izango lirateke hilerrian ehortzi 22. eta 23. artikuluen C) eta D) idatz zatietan adierazitako pertsonak, ez eta, hala behar izanez gero, 24. artikulua.ren C), D) eta E) idatz zatietan adierazitakoak. Era berean, erabaki hau indargabetu egin ahal izango luke, toki arazo hori konponduta dagoela erabakitakoan.

Segurtasun juridikoa bermatze aldera, kontzejuak ez du hartuko erabaki hori 22., 23. edo 24. artikuluetan xedatutako ehorzketa eskubideak dituen pertsonaren baten heriotzaren unean bertan.

#### V. titulua

##### Hilerri zaharrerako xedapenak

**27. artikulua.** Ez da inor ehortziko hilerri zaharrean, salbu eta aparteko eta ezinbesteko arrazoiren batengatik, eta, hala ere, kontzejuaren baimena beharko da, zeinek, egoera aztertuta, ehorzteko baldintzak ezarriko dituen.

Hilerri zaharrean ehorzterik beharko balitz, ordenantza honen 22., 24., 25. eta 26. artikuluetan eta gaineratukoetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonen hilotzak edo errautsak baino ezin izango lirateke ehortzi.

Debekatuta dago errautsak barreiatzea hilerrian edo haren inguruetan.

#### VI. titulua

##### Arau hausteak eta zehapenak

**28. artikulua.** Ordenantza honetan xedatutakoak hautsiz gero, kontzejuak edo organo eskudunak zehatuko ditu, indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat etorritz.

##### Xedapen indargabetzailea

Ordenantza honek, behin indarrean sartutakoan, ezereztu eta indargabetu egingo du orain arte indarrean egon den hilerrien ordenantza. Ordenantza hori ALHAOn argitaratu zen, 2015eko otsailaren 4an.

##### Azken xedapena

Ordenantza hau 2017ko abenduaren 20ko bilkuran onartu zuen kontzejuak behin betiko, eta ALHAOn osorik argitaratu ondorengo egunetik aurrera izango da indarrean, eta indarra izaten jarraituko du harik eta aldatzea erabakitzen den arte.

Erroeta, 2018ko martxoaren 5a

*Lehendakaria*  
**LUCAS MÚGICA**